



ERREFERENTZIA	Erasmus+. Hezkuntza, trebakuntza, gazteria eta kirola 2014-2020 programa. (Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. EACEA- Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kultura Agentzia Exekutiboa).
HELBURUAK	<p>Erasmus+ Programa 2014-2020 epean garatu beharreko hezkuntza, trebakuntza, gazteria eta kirol esparruetarako EBren programa da.</p> <p>Erasmus+ Programa 2007-2013 epean garatu diren programa hauen guztien baturaren emaitza da:</p> <p>Etengabeko Ikaskuntza Programa (Comenius, Erasmus, Leonardo da Vinci eta Grundtvig); Gazteak ekinean Programa; Erasmus Mundus Programa; Tempus IV; Alfa III; Edulink eta goi hezkuntzaren esparruan industrializatutako herrialdeekin hitzartutako lankidetzak programak.</p> <p>Programa honen xedea hiritarren garapena eta enplegu aukerak sustatzea da. Europak, ezagutzaren gizarte batean, bere hiritarrei beharrezkoa zaien hezkuntza, gaitasun eta sormena lortzeko aukera eman behar die.</p> <p>Programa hiru aplikazio esparrutan banatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Hezkuntza eta trebakuntza maila guztietan, etengabeko ikaskuntzaren ikuspegi batekin, eskola hezkuntza (Comenius), goi hezkuntza (Erasmus), nazioarteko goi hezkuntza (Erasmus Mundus), hezkuntza eta lanbide heziketa (Leonardo da Vinci) eta helduen ikaskuntza (Grundtvig).2. Gazteria (Gazteak ekinean), bereziki, ikaskuntza ez formala eta informala.3. Kirola, bereziki, oinarritzakoa. <p>Gainera, goi hezkuntzako bigarren mailako ikasleentzako (adibidez, Programan parte hartzen duen herrialde bateko goi hezkuntza erakunde aintzatetsiren batean master titulu bat atera nahi duen ikasle bat) mailegu bermerako mekanismo bat ere ezartzen da. Honek finantza bitartekariei mailegukerako verme partzialak emango dizkie eta maileguak ahalik eta baldintzarik onenetan eskainiko dira.</p>
EKINTZAK	<p>Programaren aplikazio esparru bakoitzeko honako ekintzak burutu ahal izango dira:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Pertsonen mugikortasuna.2. Berrikuntzarako eta jardunbide egokien hartu-emanerako lankidetzak.3. Politiken erreformarako laguntza.
ONURADUNAK	Aginte publikoak, erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak.
AURREKONTUA	14.700.000.000 euro
GAUZATZE ALDIA	2014-2020
INTERESEKO ESTEKAK	<p>Europako Batzordea – Hezkuntza eta Kultura ZN. Erasmus+ Programa</p> <p>Europako Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomoa (OAPEE/EHPEA)</p> <p>Arautegia (UE) 1288/2013 programa hau eratzeko</p>
INFORMAZIO	Europako Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomoa (OAPEE/EHPEA)

GEHIAGO

Gustavo Fernández Balbuena, 13

28002 Madril

Tel. 915 506 718

Fax. 915 506 750

oapee@oapee.es